



Andoaingo Udala

Andoaingo Udala

Zk. / Nº 2026/1583

Data / Fecha 2026/06/08

Ebazpena / Resolución

ALKATETZAREN EBAZPENA

Axeri Dantza elkarteak 2026ko martxoaren 25ean aukezturiko dirulaguntza eskaera ikusirik, 2026. urteko bere kultur jarduerak aurrera eramateko.

Hezkuntza eta kultura Teknikariaren txostena ikusirik.

Udal Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Axeri Dantza elkartearen artean proposatutako lankidetza hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

Xedea: 2026rako antolatutako kultur jarduerak.

Dirulaguntza: 6.548€.

Partidak: 1.0500.481.338.00.15.2026

Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

2.- Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Axeri Dantza elkarteari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4.- Onartutako dirukopuru honen %60a, hau da 3.928,80€ Axeri Dantza elkarteari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatia zatiengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

5.- Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, aipatu elkarteak 2027ko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko du 2026ko jardueren memoria, likidazioa eta zurigarri guztiak.

6.- Kontuan izan behar dituzte sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko da, eta Axeri Dantza elkarteak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

7.- Ebazpen hau Axeri Dantza elkarteari eta udal Kontuhartzaitza lantsailari helaraztea.



Andoaingo Udala

Erabakia Udaleko idazkariaren aurrean sinatu eta bete dadin agindu dut.

Andoainen, sinaduraren datan.

IDAZKARIA

ALKATEA,



EKS | CSV: ESKU8b5cb99f-ebd0-4657-9cd4-a2e213fe5fa9

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>